



## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN KORONABIRUSAREN (SARS-CoV-2) AURREAN ZER-NOLA JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRA. 2020-2021 IKASTURTEA**

### **AURKIBIDEA**

- 1. SARRERA**
- 2. XEDEA**
- 3. ERANTZUKIZUNAK**
- 4. AGERTOKIAK**
  - 4.1 Agertoki posibleak, Lanbide Heziketan**
- 5. HIGIENE-NEURRIAK**
  - 5.1 Higiene-neurriak, Lanbide Heziketan**
  - 5.2 Maskarak**
- 6. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO**
- 7. AURREZ-AURREKO IRAKASKUNTZA-JARDUERA GARATZEKO JARRAIBIDEAK**
  - 7.1 Prebentzio-neurri orokorrak**
    - 7.1.1 Prebentzio-neurri orokorrak, Lanbide Heziketan**
  - 7.2 Antolakuntza izaerako neurri orokorrak**
    - 7.2.1 Ikastetxeko espazioak erabiltzea**
      - 7.2.1.1 Espazioak erabiltzea, Lanbide Heziketan**
  - 7.3 Jarduerak garatzea**
    - 7.3.1 Ordu-tegiak eta malguketa**
      - 7.3.1.1 Ordu-tegiak eta malguketa, Lanbide Heziketan**
    - 7.3.2 Jolaserakoaldiak**
    - 7.3.3 Irakaskuntza-jarduera garatzeko urratsak**
    - 7.3.4 Haur Hezkuntza**
    - 7.3.5 Jantokiak**
    - 7.3.6 Beste jarduerak batzuk**
  - 7.4 Irakasleak**
  - 7.5 Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta**
- 8. BESTE GOGOETA BATZUK**
  - 8.1 Koordinazioa eta parte-hartzea**
  - 8.2 Informazioa eta komunikazioa. Harremana guraso-elkarteekin.**
    - 8.2.1 Informazioa eta komunikazioa, Lanbide Heziketan**
  - 8.3 Laguntza psikosozialeko beharrei erantzutea**
  - 8.4 Laguntza- eta jarraipen-batzordeak**



Dokumentu honen xedea da jarduketa-jarraibideak eta orientabideak eskaintzea hezkuntza-jarduera EAEko eskoletan antolatu eta 2020-2021 ikasturteari beharrezko segurtasun- eta osasun-bermeekin ekin ahal izateko.

## 1. SARRERA

2019-2020 ikasturtearen bilakaera, 2020ko martxoaren erdialdean hasi eta amaitu arte, COVID-19k sortutako pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-alarmaren egoerak eta deseskalatzearen faseek baldintzatu dute.

Ikastetxeetan aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera eteteak eta, ondoren, pandemiaren aurrerapenari eusteko ezarri zen konfinamendu orokortuak, estrategia eta baliabide guztiak zabaltzera behartu zuten hezkuntza-sistema, ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea eta hezkuntzaren kalitatea bermatze aldera, on-line irakaskuntza-jarduera eta telelanaren modalitatea modu orokorrean garatuz.

Pandemiaren faserik kritikoenak gainditu ondoren, eta aurrez aurreko jarduerara pixkanaka eta era mailakatuan itzultzeko, Hezkuntza Sailak ikastetxeei bidali zien **Koronabirusaren aurrean ikastetxeetan jarduteko protokolo orokorra, 2019-2020 ikasturtearen amaierarako**. Protokolo horretan, antolakuntzako prebentzio-neurriak eta jarduteko jarraibideak ezartzen ziren. Ikastetxeetako **Lan-arriskuak prebentziorako neurriak** jasotzen dituen dokumentua ere igorri zitzaien.

Une honetan, Deseskalatzeko planaren 3. fasea gainditu dela adierazten duen Lehendakariaren 14/2020 Dekretua argitaratu ondoren, alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak indarrrik gabe utzi dira, eta normaltasun berrirako sarrera ezarri da; eta Osasun sailburuaren ekainaren 18ko Agindua ere, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa, argitaratuta delarik, normaltasun berri baterako trantsizioa egiteko Planaren 3. fasea gainditurik, beharrezko gertatzen da jarraibide berriak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan garatu beharreko jarduera nagusiak bideratzeko eta, horrela, ikasturte-hasierako antolaketan kontuan hartzeko.

Horregatik, eta une honetan eskura dugun informazioan oinarrituta, hezkuntza-jarduera eta prestakuntza presentziala garatzeko ondoko orientabide hauek planteatzen ditugu, EAEko ikastetxe guztientzat. Araubide orokorreko zein araubide bereziko irakaskuntzak hartu dira aintzat –etapa eta maila guztiak-, zeinak 2020/21 ikasturtearen hasieran indarrean zeuden osasun-baldintzen arabera arautuko baitira. Ondoren, ikastetxe bakoitzak zehaztuko ditu neurriak, sare publikokoa zein itunpeko ikastetxea izan, bere planen, araudiaren eta antolaketaren arabera.

## 2. XEDEA

Eskolek hartu beharko dituzten neurrien xedea da hezkuntza-jarduera garatu ahal izatea, beti ere **COVID-19aren hedatzea ekidin nahiaz hezkuntza-komunitatean**; hau da, kalitatezko hezkuntzarako eskubidea bermatuko zaie gure ikasleei segurtasun- eta osasun-baldintza onenetan, ikastetxeko langileentzat zein ikasleentzat.



Gauden une honetan, eta ikasturtea 2020ko irailean hasteari begira, Hezkuntza Saila “**C o v i d 1 9 r e n a u r r e a n , L a n e k o a r r i o s a t e n a r i n d a , p a n d e m i a e n t z i o r a k o** egoeraren arabera aurre egin beharko geniekeen hiru agertokiak kontuan hartuta.

**2020-2021 ikasturtearen hasierarako ikastetxeetan jarduteko Protokolo orokor** honen helburua antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibide orokorrak ezartzea da, hasierako edozein eszenatokiri eta gertaeren bilakaeraren mende egon litezkeen balizko eszenatoki-aldaketei behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.

Horretarako, ikastetxe bakoitzak, Protokolo Orokor honetan ezarritako jarraibideei eta osasun-agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuei jarraikiz, egokitu egin beharko du bere jarduera, eta, horretarako, **Ikastetxearen Urteko Planean** (*Haur hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan 2021-2022 ikasturtea antolatzen duen Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpena* jasandagoen oinarriko dokumentua baita hau) atal bat ezarriko du, **Ikastetxeek COVID-19ren aurrean jarduteko Estrategiak** jasoko dituen. Bertan, Protokolo Orokor honetatik eratortzen diren eta hezkuntza-jarduera garatzeko ikastetxeetako antolaketarekin zerikusia duten esparruak zehaztu eta jasoko dira, hala nola komunikazio-, informazio- eta koordinazio-esparruak, ager daitezkeen egoeretarako.

Bestetik, ikastetxe bakoitzak **Kontingentzia Plan** bat osatuko du, Laneko Prebentzio eta Arriskuen Zerbitzuaren jarraibideei jarraiki egindako prebentzio- eta higiene-neurriak argi eta garbi jasotzen dituen dokumentua. Plan honek erreferentzia gisa honako dokumentu hau hartuko du: “**C o v i d e n a u r r e a n , L a n e k o a r r i s k u e n p r e b e n t**

Nola nahi ere, Protokoloak izaera dinamikoa du, eta osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da uneoro.

### 3. ERANTZUKIZUNAK

OMEk funtsezko lau osagai zehaztu ditu trantsizioak kudeatu eta prebentzio-neurriak modulatzeko. Horietako bat “gizarte- eta portaera-ikuspegiak” dira biztanleriaren konpromisoa ziurtatzeko. Trantsizioan zehar eman beharreko erantzunaren ezinbesteko habeetako bat da.

Idea hori gure eremura ekarriz gero, hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzukidetasuna eskatzen du kutsatze-arriskuak minimizatzen eta eskolen egunerokotasuna berreskuratu ahal izateko bizi izan dugun osasun-krisiaren ostean. Krisi horrek, ezbairik gabe, guztion esfortzua eta konpromisoa eskatuko dituzten ondorioak ekarriko ditu.

### 4. AGERTOKIAK

Dokumentu honek jarduketa-esparru bat zehazten du sor litezkeen jokaleku ezberdinei aurre egin ahal izateko. Aldi berean, esparru orokor hori beren egoera eta baldintza zehaztetzera egokitzen lagunduko die ikastetxeei. Eskola bakoitzak erabakiak hartu eta **Ikastetxeek COVID-**



**19ren aurrean jarduteko Estrategiak** atalean jasoko ditu. Atal hau 2020-2021 ikasturterako Ikastetxearen Urteko Planean barneratuko da.

Horietan guztietan oinarrizko jarduketa-erreferentziak hartuko dira aintzat. Erreferentzia horiek Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko ditu, legeak esleitzen dizkion eginkizunen barruan.

Ikastetxearen urteko Planerako hausnarketaren eta erabakiak hartzeko prozesuaren **Printzipioak** ondoko hauek dira:

- ◁ Datorren ikasturteko plangintza eta antolakuntza aurreratzea inprobisaziorik egon ez dadin; eta arreta egokia bermatzea ikasleei, egoera dena dela.
- ◁ Lehentasuna ematea ikasle gazteenen -autonomia txikiagoa dutenak- aurrez aurreko irakaskuntzari. Lehentasuna emango zaio Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen aurrez aurreko irakaskuntzari.
- ◁ Lehentasuna ematea ikasle zaugarrienen aurrez aurreko irakaskuntza eta arretari, bereziki Hamaika Esku programan daudenei eta Hezkuntza Premia Berezien indize altua dutenei (INE indizea)
- ◁ Familien inplikazioa eta koordinazioa bultzatzea eta sendotzea.
- ◁ Higiene- eta prebentzio-ohiturak lantzea eta sustatzea ikasleen artean, kutsatze-arriskuak murrizteko xedearekin.
- ◁ Alderdi emozionalak eta arreta pertsonalizatua lantzea.
- ◁ Eskolaren oinarrizko prestakuntza eta garapen teknologikoa ziurtatzea, online jarduera berme guztiekin garatu ahal izateko.
- ◁ Ikasle, irakasle eta irakasle ez diren langileen gaitasun digitala bultzatzea.
- ◁ Ikasle guztiei sarbide digitala bermatzea.
- ◁ Curriculumaren funtsezko osagaiak identifikatzea eta lehenestea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

Ezin da ukatu bizi izan dugun esperientziak zailtasunak gainditzera behartu gaituela guztiok, eta antzeko exigentzia duten egoera berriei aurre egiteko ikaskuntza izan behar duela.

COvid-19 kutsatzea prebenitzeak zuzeneko transmisioan esku-hartzea esan nahi du, arnasketantent bidez gertatzen denean, eta zeharkako transmisioan, kutsatutako gainazalak ukitzean gertatzen denean eraginez.

Badira hainbat ekintza, oro har, SARS-Cov2-ren transmisio arriskua nabarmen murrizten lagun dezaketenak. Ekintza horiek bost lerrotan bil daitezke:

1. 1,5 metroko segurtasun-tartea mantentzea pertsonen artean. Oinarrizko neurria da, infekzioa transmititzen duten arnas-tanten eremutik kanpo egoteko. Tanta horiek hitz egitean edo doministiku edo eztul egitean sortu eta zabaltzen dira.
2. Maskarak erabiltzea eta arnas higieena. Arnas higieinari dagokion arloan sartzen da infekzioa ez barreiatzeko maskarak erabiltzea, pertsonen artean hurbiltasun handiagoa dagoenean eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia gutxienez 1,5 metrokoa izatea einezkoa denean. Doministiku edo eztul egitean, maskara erabili ezean, garrantzitsua



da erabilera bakarreko zapiak erabiltzea ahoa eta sudurra estaltzeko, edo, bestela, ukondoa tolestea.

3. Eskuen higieena. Neurri garrantzitsua, eskuek gainazaletatik birusa transmititzeko duten gaitasunagatik. Urarekin eta xaboiarekin egin daiteke, baita soluzio hidroalkoholikoekin ere.
4. Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena. Sarritan garbitu eta desinfektatu behar dira pertsonekin kontaktuan dauden gainazalak. Aldian-aldian eta egokiro aireztatzea ere oso faktore garrantzitsua da espazio itxietan kutsatzeko arriskua murrizteko.
5. Kontaktuko-kopurua murriztea. Mugatu egin behar da talde-jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua. Ahal dela, jarduerak talde txikiagoetan egin behar dira, talde egonkorak osatuz eta segurtasun-tartea mantenduz haien artean.

2020-2021 ikasturtearen hasierari begira, eta osasun-egoeraren arabera, hezkuntza-jarduera ondoko hiru jokalekuetan gara zitekeen:

1. **1. agertokia:** lehen normaltasun-agertoki bat, non datu epidemiologikoen eta osasun-agintarien gomendioek aukera emango luketen aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera modu normalizatuan garatzeko.

Ikasturtea irailean hasiko da, aurrez aurre, etapa eta maila guztietan. Hezkuntza sailburuordeak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako 2020-2021 ikasturtea antolatzeari buruz emandako Ebazpenetan garatzen den bezala, aurrez aurreko hezkuntza-jardueran segurtasun- eta osasun-neurri batzuei eutsiko zaie, betiere Osasun Saileko agintarien jarraibideei eutsiz. Beste agertoki batzuetara igarotzea ahalbidetuko duten neurriak hartuko dira eta prestatuta egon beharko da horretarako. Ikasleak artatzea xede duten neurriak, ikasleen abiapuntua eta ikasturte akademikoaren jomuga aintzat hartuz. Antolakuntza izaerako ohiturak edo arauak sortzea xede duten neurriak ere aplikatuko dira.

2. **2. agertokia:** tarteko bigarren jokaleku bat, osasun-egoerak prebentzio-neurriak gomendatzen dituena, ikastetxeak irakaskuntza-jarduera malgutasunez antolatzea behartuko dituena, aurrez aurreko jarduerak eta jarduerak telematikoak txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko. Bigarren agertokian etapa, ikasturte edo ikasle jakin batzuen presentzialtasuna lehenetsi beharko da, eta hainbat neurri hartu beharko dira irakaskuntzaren eta espazioen antolamenduari, distantziei, norberaren eta ingurunearen higienari eta abarri dagokienez.
3. **3. agertokia:** Hirugarren eszenatokiak konfinamendua eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduerak ekarriko ditu. Kasu honetan, beste behin, eta osasun arloko agintariek ezarri dituzten neurrien arabera, antolakuntza eta eskolako langileen presentzia arautzeko neurriak hartuko dira, ikasleen hezkuntza-jarduerak ez dezan inolako etenik izan.

Pandemiaren balizko agerraldi berrien arabera, orokorrak izan edo irismen lokalizatukoak izan (udalerrria, ikastetxea, eraikina, ikasgela), ikastetxeek beren jarduerak eremuan hartu beharreko



neurriak jaso beharko dituzte **Ikastetxearen Kontingentzia-planean**, eta prest egon beharko dute beren antolamendua eta funtzionamendua eszenatoki horretara egokitzeko.

#### 4.1 Agertoki posibleak, Lanbide Heziketan

Hauek dira erabakiak hartzerakoan erabakigarri izan diren **Printzipioak**:

- ⟨ Hurrengo ikasturtea aurreikusitako edozein agertokiri erantzun ahal izateko moduan planifikatzea eta antolatzea.
- ⟨ Ikastetxeak digitalizatzea bultzatzea, ikastetxeak, ikasleak eta irakasleak prestakuntza ez-presentzialera egokitzeko aukera emango duten plataforma, sistema eta ekipoeekin.
- ⟨ Konpetentzia digitalen arloan ikasleek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek behar duten prestakuntza sustatzea.
- ⟨ Ikasle guztiek prestakuntza ez-presentziala jasotzeko aukera dutela ziurtatzea.
- ⟨ Heziketa-ziklo bakoitzeko funtsezko gaitasunak identifikatzea, agertoki jakin batzuetako ikaskuntza-prozesuetan lehenesteko.

2020-2021 ikasturtearen hasierari begira, eta unean uneko osasun-egoeraren arabera, beharrezkoa da kontuan hartzea LANBIDE HEZIKETA EMATEN DUTEN ZENTROEK funtsean hiru agertokitan garatu ahal izango dituztela beren jarduerak:

1. **1. agertokia**: modalitate presentziala heziketa-ziklo eta maila guztietan. Kasu honetan, Osasun Sailak ezarritako segurtasun- eta osasun-neurriak errespetatu eta bete behar ditugu.
2. **2. agertokia**: aurrez aurreko jarduera eta online jarduera uztartzen dira. Kasu horretan, hainbat aukera ezarri ahal izango dira:
  - a. Eskolak aldi berean jarraitzea, bai ikasgelatik, bai ikastetxetik kanpo zuzenean.
  - b. Ikasleen jarduera presentziala eta online jarduera egun edo asteka txandakatzea.
  - c. Heziketa-zikloetako modulu praktikoen ikaskuntza presentziala lehenestea.
3. **3. agertokia**: hezkuntza-jarduera ez-presentziala. Kasu horretan, eta berriz ere Osasun Sailak ezartzen dituen neurriekin bat etorritik, ikastetxea antolatzeko beharrezkoak diren jarraibideak eta neurriak helaraziko dira, haien jardueren jarraipena bermatzeko.

#### 5. HIGIENE-NEURRIAK

Prebentziorako, behar-beharrezkoa da ikasleen eta eskolako langileen -irakasle, begirale, zerbitzuetako edo garbiketako langileak...- zein eskola-barrutiko higiene-neurriak areagotzea. Neurri horiek eraginkorrak izan daitezten, eskolak dagokion plangintza egin beharko du.

Bai ikasle txikienekin, bai norberaren garbiketarako autonomia mugatzen duen desgaitasunen bat dutenekin, kontuan hartuko dira dokumentu honetan geroago aipatzen diren berariazko ohar batzuk.

Badira arreta berezia eskatzen duten eskola-barrutiko zenbait espazio (informatika gela, areto nagusia, irakasleen gela, komunak, liburutegia, eskailerak, etab.) eta objektu (argi-giltzak, ateetako heldulekuak, barandak, etab.). Higiene-neurriak eskola-barruti osorako badira ere



garrantzitsuak, are eta garrantzitsuagoak dira oraindik arestian aipatu espazio eta objektuei dagokienez, ikasleen joan-etorri asko hartzen baitituzte egunean zehar. Horrexegatik, espazio eta objektu horietako higiene-neurriak areagotzea komeni da. Nolanahi ere, edozein unetan hezkuntza-jardueraren garapen normalerako beharrezkoak ez diren espazio guztiak itxita egongo dira.

Bereziki zainduko da garbiketa eta desinfekzioa, garbiketa-programa trinko baten bidez. Era berean, espazioen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barruko airea berritzen laguntzeko, ahal den neurrian kanpoko airearekin lan eginez.

Norbera babesteko neurriak zein instalazioak garbitu eta desinfektatzeko prebentzio-neurriak “**C o - 1 9 d e n a u r r e a n , L a n e k o a r r i z e n k a d o k u m e n t u a e b e n t z i o i**” jasota daude.

Azpitarratu beharra dago eskolara egunero bertaratzen diren lagun guztiek ondoko sintomen –edo ondoko sintoma hauetako batzuen- agerpena zaindu beharko dutela: 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik ez izatea. Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren osasun-zentrorra deitu beharko dute.

Aipatutako Prebentzio Neurrien dokumentuan kontuan hartu beharreko hainbat alderdi jorrotzen dira, hala ekipamenduari eta higienerari, urruntzeari, espazioen erabilerari eta sarbideari buruzkoak, nola norberaren higienerako eta instalazioen garbiketarako neurriei buruzkoak. Baina horiez gain, garrantzitsua da kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk ere azpitarratzea.

### 5.1. Higiene-neurriak, Lanbide Heziketan

Aurrez azaldutakoa kontuan hartzeaz gain, Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxeetan, gela/tailer/laborategi bakoitzak gel hidroalkoholikoa izango du eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko, bai eta erabili eta botatzeko materiala baztertzeko ontzi edo paperontzi espezifikoko bat ere (paperezko zapiak, kasu). Beharrezko materiala dagoela ziurtatuko da: erabili eta botatzeko zapiak, maskarak, eskularruak, tapa eta pedala duten ontziak, garbitzeko eta desinfektatzeko materiala eta produktuak, soluzio hidroalkoholikoak, etab.

### 5.2 Maskarak

Maskara erabiliko da, ekainaren 9ko 21/2020 Legegintzako Errege Dekretuan (prebentzio- eta higiene-neurriei buruzkoa) 6. artikulua ezarritakoaren arabera, eta pertsonen arteko distantzia 1,5 metrotik gorakoa ezin denean izan. Populazio osasuntsuarentzat gomendatutako maskara higienikoa izango da, eta ahal den guztietan berrerabilgarria.



Ikasleei dagokienez:

- Haur Hezkuntza: Maskara ez da derrigorrezkoa.
- Lehen Hezkuntza; 1. eta 2. mailak: Bizikidetza-talde egonkorraren barruan gauden guztietan maskara ez da derrigorrezkoa izango. Talde horretatik at maskara erabili beharko da, ezin bada lagun arteko 1,5 metroko distantzia gorde.
- Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera: 1,5 metroko distantzia lagun artean bermatzea ezinezkoa den guztietan, maskara erabili beharko da. Ez da beharrezkoa izango nor bere mahaian eserita badaude, eta pertsonen artean 1,5 metroko distantzia badago, gutxienez.

Irakasleei dagokienez:

- Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 2. mailara arte: orokorrean, maskararen erabilera borondatezkoa izango da bizikidetza-talde egonkorrean gaudenean. Talde horretatik at derrigorrez erabili beharko da, ezinezkoa bada lagun arteko 1,5 metroko distantzia bermatzea.
- Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera: derrigorrez erabili beharko da, ezinezkoa bada lagun arteko 1,5 metroko distantzia bermatu.
- Maskara motari dagokionez, higienikoa izango da, laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuak bestelakorik agindu ezean.

Eskola-garraio kolektiboan ere nahitaez erabili beharko da, 6 urtetik aurrera.

Ikastetxe guztiek maskarak izango dituzte irakasleentzat eta ikastetxeko langileentzat. Ikasleek nork bere maskara eraman beharko dute, baina ikastetxeak maskara bat bermatuko die ikastetxera sartzerakoan maskara hori hainbat arrazoiengatik falta duten ikasleei.

Maskararen erabilera zuzena azaldu behar da, gaizki erabiltzeak transmisio-arrisku handiagoa ekar baitezake.

Ikastetxeetan higiene-neurriak betetzea erraztu behar da osasunerako hezkuntza-estrategien bidez eta haurrentzako kartel eta seinaleetika atseginen bidez, neurriak betetzea errazteko.

## 6. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

- a) COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagun batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.
- b) Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
- c) Zehazki, **gaitzaren sintomak antzemanez gero** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), eskolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari, gehienbat ikaslea





- adingabea denean. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.
- d) **Gaitzaren sintomak** eskolako langileren batean agertuko balira, honek eskola utzi eta etxera joango da eta gomendio berberak jarraitu beharko ditu.
- e) Haur edo irakasleren batek Covid-19n positibo emanez gero, kontaktutzat hartuko da gainerako ikasgela edo taldea, haurrak zaintzeko edo hezteko ingurunean, eta etxeko berrogeialdia egin beharko du 14 egunez, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita. Osasun Sailaren SARS-Cov koronabirusa zaintzeko protokoloari jarraituko zaio (<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>) eta zaintza epidemiologikoko unitatea izango da.

## 7. AURREZ-AURREKO IRAKASKUNTZA-JARDUERA GARATZEKO JARRAIBIDEAK

Oinarrizko Erreferentzietatik abiatuta, prebentzio-neurri orokor batzuk hartu beharko dira, osasun arloko agintariek adierazitako irizpideetan oinarrituta beti. Horien eskutik, eskola-jarduera antolatzeko neurriak garatu eta ezarri beharko dira ere.

### 7.1. Prebentzio-neurri orokorrak

Aurreko atalean eta Eranskinean proposaturiko higie-neurriez gain, beste neurri batzuk hartu beharko dira ere, osasun arloko agintarien irizpideak betez.

Oinarrizko prebentzio-erreferentzietatik abiatuta, orokorrean eta 2020-2021 ikasturtearen hasierari begira, **1. agertokian**:

- ◁ Orokorrean, **1,5 metroko distantzia mantenduko da lagunen artean**, eskolan lagunen artean gertatzen diren elkarrekintza guztietan. Aipatu segurtasun-distantzia hori mantentzea ezinezkoa denean, higie-neurri egokiak ezarriko dira kutsatzeak saihesteko. Azken neurri horien artean dago maskaren erabilera.
- ◁ Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ( 1. eta 2. mailetan), ikasle-talde egonkorrek sortzea bultzatuko da. Hauek, tutorearekin batera **bizikidetzatalde egonkorrek** osatuko dituzte. Talde horietako kideek elkarren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete, pertsonen arteko distantzia zorrotz mantendu beharrik gabe. Bizikidetzatalde egonkor horiek ikastetxeko beste talde batzuekiko elkarrekintza saihestu beharko dute, kontaktu kopurua ahalik eta gehien mugatuz, eta horrek ez luke 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde beharra nahitaezko bihurtuko.
- ◁ **Aurrez aurreko irakaskuntza** bermatuko zaie ikasle guztiei. Ikasleen zati baten bertaratzea lehenetsi beharko balitz (pandemiaren bilakaeragatik edo 2. eta/edo 3. agertokietara igarotzeko beharagatik), hasierako maila eta etapen (haur eta lehen hezkuntzak) izango dute lehentasuna. Era berean, ikaslerik zaurgarrienen edota zailtasunik gehien dutenen presentzialtasunari ere eutsiko zaio, INE indizedun eta Hamaika Esku programako ikastetxeetako ikasleak lehenetsiz.

#### 7.1.1 Prebentzio-neurri orokorrak, Lanbide Heziketan

Atal honetako aurreko puntuan ezarritako neurriez gain, pandemiaren eboluzioagatik eta 2. eta 3. agertokietara izan daitekeen eboluzioagatik ikasleen bertaratzea lehenetsi beharra balitz, lehentasun hori aldeaz aurretik zehaztu beharko da, honako irizpide hauetan oinarrituta:



prestakuntza-moduluaren tipologian (teorikoa eta praktikoa) eta ikasleak ikastetxera joateko ezarritako alternantzia-planean.

## 7.2. Antolakuntza izaerako neurri orokorrak

Esparru honetan eta neurri orokorretatik abiatuta, antolakuntza izaerako jarraibide orokorrak proposatuko dira.

Neurri hauek osasun arloko agintariak eman dituzten jarraibideetan oinarrituta daude. Eskola bakoitzak, bere autonomia gauzatuz eta bere kasuistika aintza hartuz, aipatu neurriak bere errealitatera egokitu beharko ditu.

Oro har, arau orokor gisa, prebentzio- eta higiene-neurriak “ **C o -19** **red aurrean, Laneko a r r i s k u e n p r e b e n t z i o n a r a b a t z a r r i t a k o j a r r a i b i d e a k a h a r t u** beharko dituzte aintzat.

Hala ere, ikastetxeko hezkuntza-jarduera antolatzeke, garrantzitsua da kontuan hartu beharreko alderdi batzuk azpimarratzea, batez ere pertsonen arteko distantzia errespetatzen saiatzeko, kontaktuak eta pilaketak mugatzen saiatuz.

- ◁ Eskola-egunaren hasiera eta amaiera mailakatzea. Zentrarako sarrera eta irteera ordenatuta eta, behar izanez gero, mailakatuta eduki beharko dira, pilaketak saihesteko. Horretarako, gehienez ordubeteko tartea erabili ahal izango da, ikastetxeak dituen talde eta sarbide kopuruaren arabera. Adibidez, sarrera 08:30etik 09:30era bitartean antolatu ahal izango da, eta irteera eguerdian 12:30etik 13:30era bitartean; sarrera arratsalde 14:30etik 15:30era bitartean, eta irteera 16:30etik 17: 30era bitartean, hezkuntza-etaparen ordutegiaren arabera.
- ◁ Ahalegina egingo da ikasle-taldeek ikastetxean egiten dituzten joan-etorriak ahalik eta gehien murrizteko.
- ◁ Batzar edo bilera jendetsuak saihestuko dira ahal dela.
- ◁ Eskola-garraio kolektiboaren kasuan, COVID-19ren aurkako prebentzio-neurriak buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko da. Ahal den neurrian, garraio aktiboa sustatuko da (oinez edo bizikletaz), COVID-19ren aurkako prebentzio-neurriak dagokienez.

### 7.2.1 Ikastetxeko espazioak erabiltzea

Gomendatutako lagunen arteko distantzia eta harremanen mugatzea hezkuntza-jardueraren garapenean ahalbidetu ahal izateko, eskolako espazioak berrantola daitezke. Beharrezkoa balitz, eta indarrean dugun agertokiaren arabera, eskuragarri dauden espazio guztiei ahalik eta etekinik handiena ateratzen saiatuko gara.

- **Barruko espazioei** dagokienez, eskola bakoitzak aukera ezberdinak azter ditzake ikasgelen kopurua handitzeko: horretarako, liburutegiak, gaikako gelak (teknologia, informatika, plastika, laborategiak, etab.), areto nagusiak, gimnasioak eta antzekoak erabili daitezke.
- **2. agertokian** egonez gero, gelen edukiera mugatu beharra egon daiteke, eta ikastetxeetako espazio alternatiboak erabili beharra izan. Aurrez aurreko jarduerarako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen lehentasuna dela eta, hurbileko beste ikastetxe batzuetako espazioen erabilera koordinatu ahal izango litzateke, horietan presentzialtasunik ez balego. Ikastetxeko espazio guztiak kontuan hartuko dira aurrez



aurreko hezkuntza-jardueraren garapena antolatzeko (musika-gela, ingeles-gela, erabilera anitzak, biblioteka, gimnasioa eta abar). **2. agertoki horretan**, ikasle kalteberenen eta/edo zailtasun gehien dituztenen presentzialtasuna ere lehenetsi behar da, eta lehenetsia eman behar zaie INE indize altuko ikastetxeetako eta Hamaika Esku programako ikasleei.

- Halaber, taldeen arteko harremanak mugatze aldera, espazioak **konpartimentuetan zatitzeko** aukera azter daiteke **2. agertokiaren** barruan: hau da, ikasgela txikiagoak sortuko lirateke espazio handienetan (esaterako, gimnasio edo areto nagusietan).

### 7.2.1.1. Ikastetxeko espazioak erabiltzea, Lanbide Heziketan

- Heziketa-zikloen kasuan, baimendutako sarbidea duten gela, tailer, laborategi eta erabilera komuneko espazio bakoitzeko gehieneko edukiera izango da horiek erabiltzen dituzten pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetuko duena; segurtasun-distantzia hori mantentzea ezinezkoa denean, nahitaezkoa izango da maskarak erabiltzea.
- Lanbide Heziketako heziketa-zikloak egiten ari diren ikasleek ikastetxean erabiltzen dituzten espazioen aireztapena handituko da, barruan airea berritzen laguntzeko.
- Tailerren, laborategien eta informatika-gelen kasuan, tresnak, ekipoak, makinak eta ordenagailuak banaka erabiltzea gomendatzen da; ekipamendu horiek une oro garbitzea eta desinfektatzea bermatuko da, erabilera bakoitzaren ondoren, gela bereko beste ikasle batek erabili behar badu, edo erabilera amaitzean.

## 7.3. Jarduerak garatzea

### 7.3.1 Ordu-tegiak eta malguketa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduan ezarritakoaren arabera, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan ikasle guztiak jasoko duten zuzeneko irakaskuntzarako ordu- eta egun-kopurua 875 eta 175 izango dira, hurrenez hurren.

**1. agertokian**, etapa eta ikasturte guztiak modalitate presentzian izango dira; bertan, Haur eta Lehen Hezkuntzan eskolak goizez eta arratsalde emango dira, baina, hala ere, OOGk edo ikastetxeko eskola-kontseiluak, botoen gehiengo soilaz, astean arratsalde bateko eskolak kentzea onetsi ahalko dute, arratsalde hori irakasleen prestakuntza-jarduerak egiteko edo, 2019-2020 ikasturtean bizi izandako egoera bereziagatik, bere taldearen aldean desabantaila-egoeran geratu diren ikasleentzako indargarri-jarduerak egiteko erabili ahalko dute. Aldaketa horrek inolaz ere ezingo du ikasleen asteko ordutegian murrizketarik ekarri. Ordutegiaren aldetik beste edozein aldaketa egiteko, ikastetxe publikoen kasuan, arrazoitutako eta OOGk onetsitako proposamena aurkeztu beharko zaio lurralde-ikuskaritzari.

Arlo bakoitzerako ezarri diren erreferentziazko ordutegiak aintzat hartuta, ikastetxeak saioen iraupena malgutasunez antolatzeko aukera izango du, 30 minutuko tarteekin.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren** etapan, honako hauek izango dira irakastorduak eta irakastegunak: 1.050 ordu eta 175 egun, gutxienik.



2019-20 ikasturteko konfinamendu-aldiaren ondoriozko gertakizunak direla eta, antzeko egoera bizi dezakegula aurreikusita, 2020-2021 ikasturterako, salbuespen modura, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek ikasturte osoa goizeko jardunaldi jarraituan egin ahalko dute; horretarako, 6 eskola-saio egin beharko dituzte, guztiak iraupen berekoak, eta, gutxienez, 55 minutukoak bakoitza. Gainera, jolaserako tarte bat edo gehiago egongo dira; gutxienez, guztira, 30 minutuko atsedena hartu beharko da.

**Batxilergoko 1. eta 2. mailatan**, ikasturteak 175 irakasteguneko iraupena izango du, gutxienez, eta, egun horietatik, 160, gutxienez, benetako eskola-saioak izan beharko dira.

Ohiko egutegia antolatu behar izateaz gainera, 2020-2021 ikasturterako salbuespen gisa, zenbait hezkuntza-etapa ematen dituzten zentroetan, ordutegiak bateragarri egin ahal izateko, online modalitatean 4 ordu eman ahalko dira, gehienez, Batxilergoko 1. mailan, eta 3 ordu, Batxilergoko 2. mailan.

Egokiera horretan, 2. eta/edo 3. agertoki posibleetan, ikasleek zentroan izango dituzten ordu presentzialak eta urrutiko arretarako orduak bereizi behar dira.

**2. agertokian**, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen irakaskuntza presentziala lehenetsiko da, goizeko ordutegian, bai eta ikasle kalteberen eta zailtasun gehienekoena ere.

Malgutasuna behar da espazioak eta denborak antolatzeke, egoerei eta familia-kontziliaziorako beharrei erantzuteke. Beharrezkoa denean, zentroak irekitzeko ordutegiak zabaldu litezke indargarri-jardueretarako, eskolaz kanpokoetarako, sozializaziorako, prestakuntzarako eta zentroak egokitzat jotzen dituenetarako. Azken batean, eta Euskadiko Eskola Kontseiluak gomendatzen duenez, denborak antolatzeke formula berriak eta sortzaileak bilatu beharko dira, ikasle guztien beharrei erantzuten zaiela bermatzeko.

Kasu batzuetan baliteke zentrorra ikasgelako talde guztiarekin bertaratu behar ez izatea; beraz, garrantzitsua izango da arretarako formula malguak aurreikustea, arlo bakoitzerako araututako ordu ofizialen konputu osoa aintzat hartuta.

**3. agertokiaren** kasuan, nahiz eta irakaskuntza ez-presentzialaren jardura izan, ikasleak telematikoki konektatzeko ordutegi batzuk ezartzea komeni da, hezkuntza-jardueraren erritmoari eta jarraipenari eusteko, eta ikasgelara bertaratzan ez diren ikasleek erreferentzia gisa beren talderako edo ikasgelarako ezarritako ordutegia izango dute.

### 7.3.1.1 Ordutegiak eta malguketa, Lanbide Heziketako zikloak ematean

**Lanbide Heziketan**, Oinarrizko Lanbide Heziketa barne, ikasturteak, eskola-egutegia eratzeko irizpideak ezartzen dituzten ebazpenetan adierazten den bezala, 175 eskola-eguneko iraupena izango du gutxienez, eta horietatik 165 (33 aste) curriculum (benetako eskola) ematekoak izango dira.

Ikastetxean dauden ikasle presentzialen ordutegia eta on-line arretarako ordutegia bereizi behar dira, 2. edo 3. agertokietan egonez gero. Egoera horietan, Hezkuntza Sailak emandako jarraibideak bete beharko dira.



### 7.3.2 Jolaserako aldiak

Ikasturte-hasieratik, **1. agertokian**, jolaserako aldiak ahalik eta ikasle-kopuru txikienak aldi berean batzeko moduan antolatuko dira, pilaketarik egon ez dadin; horretarako, txandak areagotuko dira, eta talde egonkorrek ikasle-taldeen ordu eta espazio berean topo ez egiteko irizpidea nagusituko da.

**2. agertokiaren** kasuan -hezkuntza-jarduera mistoduna-, jolaserako aldiak edo aldietan ikasleei emango zaien arreta ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du eta, horretarako, osasun-agintariak haietan ezarritako espazioen erabilerari, pertsonen arteko distantzietan, edukierari eta denborekin plangintzari lotutako neurriak hartuko dira kontuan.

Kontaktuko jolasak saihestuko dira, bai eta urrutze sozialerako aukerarik ematen ez dutenak ere.

### 7.3.3 Irakaskuntza-jarduera garatzeko jarraibideak

Onartzen den egutegia ikasturte osoan zehar egongo da indarrean, eszenatokia edozein dela ere.

**2. agertokian** egotea aurreikusiz gero, irizpide orokor gisa Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetako ikasleen jarduera presentziala lehenetsiko da, gainerako etapeneko ikasleen aldean, eta, haietan, bai Hamaika Eskuko zentroetan, bai HBI baliabidea dutenetan, ikasle kalteberenentzako jarduera presentziala lehenetsi beharko da eta, horretarako, ikastetxeko espazio eta baliabide guztiak antolatu, betiere bete beharreko segurtasun-neurriak betetzen diren bermatuta. Era berean, gainerako ikastetxeek ikasle kalteberenen jarduera presentziala ere lehenetsi beharko dute, betiere kontuan hartuta gure hezkuntza-sistema inklusiboa eta ekitatiboa dela eta, hartan, arreta berezia eman beharko zaiela zailtasun gehien duten ikasleei, errefortzuko eta zerbitzu osagarriko programen bidez.

**2. agertokiaren** kasuan, aukera emango da online modalitatean dauden ikasleek, telematikoki, eskola presentziala gainerako ikaskideekin batera jarraitu ahal izateko.

**Ikaskuntzarekin jarraitzen dela ziurtatu** behar da eta, horretarako, irakaskuntza planifikatu, kalitateko hezkuntza inklusiborako eskubidea bermatzeko eta, hala, irakaskuntza presentziala eta ez-presentziala konbinatu ahal izateko, eskuratu duten eta 2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekoan ikastetxe bakoitzak garatu duen esperientziaren arabera.

Gomendio gisa, ikasturtea hastean:

- Klaseen modalitate presentzialaren aurretik, irakasleek aukeratuta izango dituzte hezkuntza-etapa bakoitzeko ikasketa-maila bakoitzean gaitasunen oinarriko mailak lortzen direla bermatzeko funtsezko alderdiak (lorpen-adierazleetan zehaztuta dago). Era berean, lorpen horretarako bide emango duten funtsezko jardueren plangintza eginda egongo da.
- Klase-ikasgela bakoitzeko irakasle-taldeek koordinazio-bilerak egingo dituzte, honako helburu hauekin:



- Ikasleei buruzko informazioa partekatu eta taldeko eta banako lorpen eta beharren balorazioa egitea.
- 2019-2020 ikasturte-amaierako aldian eginiko lanak partekatzea, haien koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko eta hainbat eremu/arlo/gaitatik oinarritzko alderdiak sendotzen direla bermatzeko.
- Ikastetxeetan ezarritako koordinazio-taldeen bidez (batzorde pedagogikoak, ziklo-taldea, mintegiak...), prozesu hori garatzeko behar diren urratsak ezarriko dira.
- Lehen astean, bizi izandako egoera ikuspegi afektibo-emozionaletik baloratzea komenigarria izateaz gainera, aldi ez-presentzian landutako minimoak berrikusiko dira.

#### 7.3.4 Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzako etaparen kasuan, higie- eta prebentzio-neurri espezifikoek ikuspuntutik, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren laguntzarekin eta Osasun Sailaren jarraibideekin, Kontingentzia-plan bat ezarriko da, jarduerak garatzeko beharrezkoak diren jarraibideak jasoko dituen. Honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu.

- ⟨ Sartzeko eta irteteko unean, langile batek ume bakoitzari bere erreferentziarako espaziora lagunduko dio, bakarrik joateko autonomia ez bada.
- ⟨ Eskuen higie- areagotzea gomendatzen da (urarekin eta xaboiarekin) eta, hala, honako une hauek ziurtatzea: ikastetxera heltzean, doministiku egin edo zintz egitean, espazioa edo jarduera aldatzean, jan aurretik eta ondoren, komunera joan ondoren eta, betiere, zikinkeria ikus daitekeenean.
- ⟨ Eskuak ahaztu sarri sartzeko dituzten umeetan gel hidroalkoholikoa erabiltzea saihestuko da. Kontu izan, eta ez utzi gainbegiratu gabe eta erraz hartzeko moduko lekuan.
- ⟨ Garrantzitsua da umeak kontsolatzea, eta baliteke sarri besoetan hartu behar izatea, edo haiekin hurbileko elkarreragina eduki behar izatea, arreta egokia emateko. Besoetan hartzen direnean edo hurbileko elkarreragina behar dutenean, zaintzaileak maskara higienikoa jantzi ahal izango du.
- ⟨ Lo-kuluxketarako, komeni da koltxonetak bi metroko distantzian jartzea, eta ikasleak etzateko noranzkoa tartekatzea (burua eta oinak noranzko desberdinetan). Egunero aldatuko dira izarak edo burkoak, edo behar bada bakoitzak bereak erabiliko ditu eta, kasu horietan, gutxienez astean behin aldatuko dira, bai eta zikin dauden bakoitzean ere.
- ⟨ Pixoihala aldatu ondoren, haurren aldaketa desinfektatu beharko da, ikasle batetik bestera, edo aldaketa pertsonala erabiliko da haietako bakoitzarentzat.
- ⟨ Beharrezkoak ez diren jostailuak edo objektuak eta garbitzeko zailak diren itemak kenduko dira.
- ⟨ Taldeak egonkorrik izateko ahalegina egin behar da; alegia, taldekideak, bai umeak bai zaintzaileak, beti berak izatea, eta taldeen artean urruntze fisikoa egoteko ahalegina ere egin beharko da.
- ⟨ Talde bakoitzeko edo 2 taldeko, komun bat esleituko da, posible bada. Bestela, areagotu egingo da garbiketa eta desinfekzioa.
- ⟨ Ikastetxean joan-etorriak daudenean, ordutegiak eta antolamendua egongo dira, taldeak aldi berean mugitu ez daitezela.
- ⟨ Langileen kasuan:



- Ilea batuta eramatea eta eraztunik, eskumuturrekorik eta zintzilikariorik ez erabiltzea gomendatzen da.
- Ahal den neurrian, egunero temperatura altuan garbitzen den laneko arropa erabiltzea.

### 7.3.5 Jantokiak

1. agertokia da, epidemiologo adituen eta osasun-agintarien aurreikuspenetan oinarrituta, gaur egun Hezkuntza Sailak probabilitate handienekotzat duen agertokia. Hauxe da hezkuntza-komunitate osorako ere agertoki desiragarria izanik, ikastetxea ikaskuntza-komunitate integrala denez, ezinbestekoa baita ikasleen hazkunde pertsonalerako eta sozializatorako, eta guztien aukera-berdintasuna bermatzeko. Eszenatoki honek ez luke aldaketa garrantzitsurik eragingo ohiko ikasturte-hasierari dagokionez, honako hauetan izan ezik: Kontingentzia-plan orokorrean ezartzen diren oinarrizko prebentzio- eta segurtasun-neurriekin zerikusia duten alderdietan.

Ikastetxeetako ordutegiaren antolaketaren arabera, jantoki-zerbitzuak normaltasunez funtzionatuko du.

Hala ere, 1. agertoki horretan, beste agertokietara eboluzionatzeko neurriak diseinatzeko eta hartzen joango dira.

**2. agertokian**, indarrean dagoen ordutegia edozein dela ere, jantoki-zerbitzurako sarbidea hezkuntza- edo gizarte-egoera bereziki ahulean dauden eta ikastetxeko zuzendaritzak familien premia-irizpideen arabera ezartzen dituen ikasleentzat baino ez da izango.

Halaber, eskola-garraioko zerbitzua behar duten ikasleei arreta emateko moduan egokituko da.

### 7.3.6 Beste jarduera batzuk

Oro har, honako orientabide hauek proposatzen dira **1. agertokirako**. Nolanahi ere, osasun-agintarien jarraibideen arabera, 2. eta/edo 3. agertokien bilakaeraren kasuan, egiten diren aginduak bete beharko dira.

- ⟨ Gomendatzen da urruntze- eta higiene-neurriak betetzen ez dituzten ekitaldi edo bilerarik ez egitea.
- ⟨ Ikastetxeko kirol-ekitaldietan, jendea batzea aurreikusten den kasuetan, ziurtatu beharko da osasun-oharretan jaso diren pertsonen arteko distantziari eta edukierari eutsi dakiekeela.
- ⟨ Eguraldiak aukera ematen badu, aire zabaleko espazioak erabiliko dira kirol-jarduerak eta -ekintzak eta eskolaz kanpoko bestelako jarduerak egiteko, haien ezaugarriek horretarako aukera ematen badute.
- ⟨ **Ebaluazio-probak** egiteko: une oro azterketarien artean segurtasun-distantzia (1,5 m) gordetzeko behar diren jarduketa-prozedurak ezartzea eta, horretarako, honako alderdi hauei arreta berezia eskaintzea:



- Ikasleak azterketa egiteko lokaletara modu antolatuan sartzea eta, hala, pilaketarik ez egotea; horretarako, 1,5 metroko distantzia gordeko da, gutxienez, sartzeko ilaran. Horretarako, proba presentzialetara sartzeko ordutegiak ezarriko dira, eraikin berean ebaluazio-taldeak aldi berean ez batzeko.
- Azterketa-postuak antolatzea eta, horretarako, beharrezkoa den espazioa ziurtatzea, bai haien sarreran eta irteeran, bai probak egin bitartean.
- Azterketak emateko eta batzeko unea antolatuta egotea eta, hala, irakasleen eta ikasleen arteko kontaktu zuzenik ez egotea (komeni da irakasleak azterketa azterketari bakoitzaren postuan utzi eta batzea, haiek bertan ez daudela).

**2. agertokiaren** kasuan, batzarrak, kirol-jolasak eta taldekatzeko baldintzak eragiten dituzten bestelako ekitaldiak ez egiteko ahalegina egingo da; hala, bilerak telematikoki egitea lehenetsiko da.

#### 7.4. Irakasleak

*Hezkuntza sailburuordeak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako 2020/21 ikasturtea antolatzeari buruz emandako Ebazpenen arabera, ikastetxeetako hezkuntza-jarduerari dagokionez, **zuzendaritza-taldeek** ikastetxeko langileen eguneroko **jarduera antolatuko dute, ikastetxearen autonomiaren** esparruan.*

**1. agertokian**, zuzeneko arduraldia ez den denboraren antolaketak lehenetsia eman beharko die hezkuntza-errefortzua behar duten ikasleei, bai eta banakako tutoretzei eta familiekiko koordinazioari ere.

Horrek irakasleen arteko koordinazio estua eskatzen du ikasturte hasieratik, ziurrenik babes horren beharra izango duten ikasleen egoera alde aurretik ezagutzeko.

1. agertokiko irakaskuntza presentzialeko egoera batean egonik, 2. agertokiko irakaskuntza misto presentzial eta on-line batera eboluzionatu daitekeenean, edo baita 3. agertokiko irakaskuntza ez-presentzialera ere, irakasleen eta hezkuntza-taldearen arteko koordinazioa inoiz baino beharrezkoagoa da. Horregatik, inplikaturako hezkuntza-profesional bakoitzak egin beharreko zereginak zehaztu behar dira, bai Banakako Lan Plana, bai curriculum aberastea, egokitzapen esanguratsuak egin edo curriculum zabaltzea landu ondoren.

**2. eta/edo 3. agertokira** aldatuz gero, jarduera misto batekin eta, are, aurrez aurrekoa ez den jarduera batekin, zuzendaritza-taldeak Ikastetxearen Urteko Planean jaso beharko ditu, **Ikastetxeek COVID-19ren aurrean jarduteko Estrategiak** atalean, tutoretzarik esleituta ez duten eta beren ordutegia on-line eskola-saiokin osatzen ez duten langile guztien ordutegien berrantolaketa, irakasle tutoreekin lankidetzan jardun dezaten, laguntzarik handiena behar duten ikasleekiko esku-hartzean.

Irakaskuntza-jardueren programaren antolakuntzaren barruan, **2. edo 3. agertokiaren** aurrean, kontuan hartuko dira irizpide orokorretan egin daitezkeen aldaketak, honako arlo hauetan: irakasleei zereginak esleitzeko eta irakaskuntza-dedikazioko eta ikastetxean egoteko denbora banatzeko, tutoretzak banatzeko, baliabide didaktikoak antolatzeko, hezkuntza-laguntza eta -errefortzua antolatzeko, ebaluazio-proposamenak egiteko, eta abar.





**2. edo 3. agertokian** egonez gero, eskolako irakasleek ondokoak erregistratu beharko dituzte: egunero planifikatutako atazak, gauzatu direnak, ordutegia, eskolaren modalitatea eta eskaini den irakaskuntzari buruzko informazioa eskaini dezaketen beste datu batzuk:

- Eskolako zuzendaritzak erregistro horiek gainbegiratu eta dagokion jarraipena egin beharko du eskolako ikasleek hezkuntzarako duten eskubidea bermatze aldera. Jarraipen horrek zuzendaritzaren lidergo pedagogikoa bultzatzen lagunduko du.
- Alde nabariak identifikatuko balira asterako planifikatutako jardueraren eta egiazki garatutako horren artean, alde horiek aztertu beharko dira eta kalteren bat ekarriko balute ikasleek kalitatezko hezkuntzarako duten eskubideari dagokionez, beharrezko neurriak hartuko dira alde horiekin amaitzeko. Azken horien artean Hezkuntza Ikuskaritzari egoeraren berri ematea dago.

### 7.5. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta

Oro har, bizi izandako egoera bereziak baliteke zailtasunen bat eragin izana eremu emozionalean, eta hura kontuan izan beharko da, irakasle guztiek betetzen duten tutoretza-eginkizunean. Zenbait alderdi orokorri erantzun behar zaie, besteak beste: **ikasleei** gaixotasunaren inguruan dituzten **izu eta estutasunak murrizten** lagundu, eta beren bizitzetan bigarren mailako edozein inpakturi aurre egiteko duten gaitasuna bultzatu. Halaber, **kontuz ibili behar da**, birusaren eraginpean egon ahal izan diren ikasle eta langileak **ez estigmatizatze**ko.

**Gizarte-zerbitzuekiko kontaktuak estuagoa izan beharko du**, baztertutako biztanleen behar bereziak aintzat hartuta; izan ere, gaixotasunaren edo haren bigarren mailako ondorioen eragin handiagoa jasan dezakete. Horretarako arriskua ekar dezakeen ikasleentzako edozein inplikazio berezi aztertzea, besteak beste: etxean gaixoak zaintzeko erantzukizuna edo esplotazioa eskolatik kanpo daudenean.

Oro har ezarritako neurriez gain, berriazko neurriak ezartzen dira ikastetxe arruntetan (gela arruntak eta egonkorak) zein hezkuntza bereziko ikastetxeetan eskolatutako ikasle horientzat.

**2. agertokirako** aldaketa gertatzen bada, ikasle hauen presentzialtasuna lehenetsiko da, betiere osasun-agintarien jarraibideen arabera, eta familiei jakinarazi beharko zaie, edozein agertokitan ikastetxera joateko baldintzak zeintzuk diren (ordutegiak, zerbitzuak, lekualdaketak, higiene-neurriak, etab.). Hala eta guztiz ere, eta momentuaren arabera, irizpideak ezarri ahal izango dira seme-alabak beren zentroetan egotea eskatzen duten familiei lehenetsia emateko. Hori horrela izango da, betiere ezarritako irizpide medikoen aurka ez badute egiten. Gainera, profil konplexuenera irizpide medikoa beharko da zentroan bertan egoteko, batez ere arnas arazoak, alergia konplikatuak eta abar baditu.

**Hezkuntza berezirako higiene- eta prebentzio-neurri espezifikoek ikuspegitik** (prebentzio-protokolo espezifiko batean jaso beharko dira neurri horiek), garrantzitsua da zenbait alderdi nabarmentzea:

- ◁ Kasu askotan oso zaila denez ikasleen arteko segurtasun-distantzia gordetzea, eta, gainera, hurbiltasuna beharrezkoa den arreta behar dutenez, babes-ekipoak emango



zaizkie irakasleei eta hezkuntza-langileei gela egonkorretan edo hezkuntza bereziko zentro espezifikoetan. Hala ere, desgaitasunen bat duten ikasleekin jarduteko neurriak ezarriko dira, kontuan hartuta eguneroko lanean distantzia mantentzea ezinezkoa dela eta norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeak dituen zailtasunak.

- ⟨ Era berean, espazioak mugatuko dira, talde desberdinetako ikasleen artean nahastea saihesteko, sokak edo antzekoak erabiliz. Ikastetxeko joan-etorrietan, elkarrekin bat egin ez dezaten antolatuko dira taldeak.
- ⟨ Desinfekzioa segurtatu ezin den eremuak saihestu egingo dira (parkeak, iturriak), eta arreta berezia jarriko da bainura sartzeko uneetan.
- ⟨ Ikasgela sakon garbitu beharko da, autonomoak ez diren ikasle batzuen jarduerak eta ezaugarriak direla-eta. Ikasleen garbitasun pertsonalean neurri espezifikoak hartzea, betiere eskularruak erabiliz eta, behar izanez gero, maskara erabiliz. Garbitu aldian-aldian garbitasunerako espazio horiek.
- ⟨ Egun bakoitzerako erabiliko den materiala aldeztu aurretik programatu eta antolatu beharko da, eta gainerakoak erretiratu mantendu. Eta arreta berezia jarri beharko da higiean eta garbiketan, partekatu gabeko erabileran eta arriskuak eragin ditzaketen material-motetan.
- ⟨ Ez erabili gel hidroalkoholikorik eskua ahora sartzen duten ikasleekin.

## 8. BESTE GOGOETA BATZUK

### 8.1. Koordinazioa eta parte-hartzea

Sailen eta sektoreen arteko lana sendotu behar da toki-mailan, eta administrazioko mailen arteko koordinazioa, elkarlanean oinarritzen diren eta ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitzen diren irtenbideak eduki ahal izateko, prebentzio-neurriak betetzeko aukera ematen dutenak, bai eta COVID-19aren kasu posibleak edo agerraldiak kudeatzeko eta kalteberatasun sozial handieneko egoerei arreta emateko beharrezkoa den komunikazioari bide emateko ere.

Komunikazio eta koordinazio hori honako hauekin ezarri behar da:

- ⟨ Osasun Sailarekin, kasuen, berragerraldien eta osasun-indikazio berrien jarraipena egiteko, bai eta ezar daitezkeen kontrol-neurriak ere.
- ⟨ Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, bai eta toki-erakundeetako gizarte-zerbitzuetako sailekin ere, gizarte-egoera ahulean dauden ikasleen kasuan informazioa eta lankidetzaren errazteko, **2. eta/edo 3. agertokietan** laguntza eta baliabideak lortzen saiatzeko eta kontziliazioaren esparruan irtenbideak bilatzeko.
- ⟨ Toki-erakundeekin, **2. agertokian** behar izanez gero, espazioa erabiltzeko baterako lanerako edo hezkuntza indartzen laguntzen duten jarduerak antolatzeko.

### 8.2. Informazioa eta komunikazioa. Harremana guraso-elkarteekin

Informazioa eguneratuta eduki behar dugu: administrazioak, ikastetxeok eta eskola-elkarteko kideok COVID-19aren inguruko informazioa eguneratuta izan behar dugu, eguneratuta dauden iturri ofizialen bidez, bai sintomei dagokienez, bai transmisioa prebenitzeko moduei dagokienez.



Erne ibili behar dugu informazioarekin; horretarako, informazioa uneoro dago eguneratuta Osasun Sailaren webgunean: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria/> Zuzendaritza-taldeak ziurtatu behar du ikastetxeetan ezarri diren jarduketa-protokoloak eta prebentzioko, higieneko eta osasunaren sustapeneko neurriak buruzko informazioa eskola-elkarte osoari iristen zaizkiola eta ulertu egiten dituela.

Garrantzitsua da informazioa guraso-elkarteekin trukatea; izan ere, familiek eta legezko tutoreek argi ezagutu behar dituzte hezkuntza-jardueraren garapenarekin zerikusia duten alderdi guztiak eta neurriak egoki ezartzeko informazio guztia. Era berean, garrantzitsua da, informazio erabilgarria zabaltzea sustatzen lagundu dezaketelako.

Guraso-elkarteen kasuan (familia eta/edo tutoreak), ikasturtea hasteko baldintzen inguruko informazio argia izan beharko dute, bai eta sintomak, pandemiaren bilakaera eta hezkuntza-jarduerak beste eszenatoki batzuetara egin ditzakeen bilakaerak ikuskatzeko duen eginkizun aktiboaren ingurukoa ere. Komeni da komunikazioko eta harremanetarako pertsonen inguruko protokoloak ezartzea ikastetxe bakoitzean.

Familiekin telefonoz, posta elektronikoz, mezuz edo posta arruntez harremanetan jartzea lehenetsiko da, eta kudeaketa telematikoa egiteko bide emango da. **Familia** eskola-erakundeetan sartu ahalko dira, beharrik egonez gero edo irakasleek edo zuzendaritza-taldeak hala eskatuz gero; horretarako, prebentzio- eta higiene-neurriak bete beharko dituzte, eta ezingo dira inolaz ere sartu, baldin eta COVID-19arekin bateragarria den sintomarik badute.

Ikastetxe bakoitzak baliabideak izan behar ditu konektatzen ez diren edo jarduera ez-presentzialetan parte hartzen ez duten ikasle eta familiekiko harremana ziurtatzeko, haien egoera zein den identifikatzeko eta haren berri emateko, beharrezkoak diren baliabideak dituztela bermatzeko eta ikasle horien hezkuntza-jarraipen berezia egiteko. Hori guztia administrazioari jakinaraziko zaio, ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzailearen bidez, laguntza eta jarraipena emateko.

Halaber, ikasleen galdera eta ardurei erantzun behar zaie, nahiz eta horretarako material egokituak prestatu behar izan, besteak beste: iragarki-oholetan, komunitetan eta beste leku zentriko batzuetan kartelak jartzea.

### 8.2.1. Informazioa eta komunikazioa, Lanbide Heziketan

Oso garrantzitsua da zentroek COVID-19ri buruzko informazioa izatea iturri ofizial eguneratuen bidez, bai gaixotasunak eragiten dituen sintomei dagokienez, bai gaixotasunaren transmisioa prebenitzeko zehaztutako jarraibideei dagokienez. Horretarako, funtsezkoa da Osasun Sailaren webgunean ageri den informazioa kontsultatzea, uneoro eguneratua baitago: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronavirus-berria/>

Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldeak bermatu behar du jardura-protokoloak eta haietan ezarritako prebentzio-, higiene- eta osasun-sustapeneko neurriak buruzko informazioa ikastetxeko hezkuntza-komunitate osoak ulertzen eta aplikatzen duela.

Lanbide Heziketako zikloak egiten adin txikiko ikasleak izanez gero, garrantzitsua da familiekin, legezko tutoreekin eta guraso-elkarteekin informazioa trukatea, argi eta garbi ezagutu behar



baitituzte hezkuntza-jardueraren garapenarekin lotutako alderdi guztiak eta higie- eta babes-neurrien ezarpen egokiari buruzko informazio guztia.

Gainera, lanbide-heziketako heziketa-zikloak egiten ari diren ikasle adingabeen familiek eta legezko tutoreek honako hauen berri izan beharko dute: ikasturte-hasierako baldintzak, sintomen zaintzan duten zeregin aktiboa, pandemiaren bilakaera eta hezkuntza-jarduerak egoera bakoitzean izan dezakeen bilakaera. Ikastetxe bakoitzean komunikazio-protokoloak eta harremanetarako pertsonak ezartzea gomendatzen da.

3. agertokirako aldaketa egin behar izanez gero, ikastetxeak Lanbide Heziketako zikloak egiten dituzten ikasleekin eta ikasle adingabeen familiekin eta legezko tutoreekin duen komunikazioa bermatuko da uneoro, heziketa-zikloei buruzko edozein egoera garrantzitsuren berri izan dezaten, bai eta izan dezaketean edozein zalantza edo eskaerari erantzuteko ere.

### 8.3. Laguntza psikosozialeko beharrei erantzutea

Zenbait alderdi orokorri erantzun behar zaie, besteak beste: **ikasleei gaixotasunaren inguruan dituzten izu eta estutasunak murrizten** lagundu, eta beren bizitzetan bigarren mailako edozein inpakturi aurre egiteko duten gaitasuna bultzatu. Halaber, kontuz ibili behar da, birusaren eraginpean egon ahal izan diren ikasle eta langileak **ez estigmatizatze**ko.

Estigmatizazioaren eta diskriminazioaren aurkako prebentzio- eta borroka-neurriak hartu behar dira, birusaren eraginpean egon direnen aurreiritzirik eta bazterketarik egon ez dadin.

Bizi izandako egoera bereziak baliteke zailtasunen bat eragin izana eremu emozionalean, eta hura kontuan izan beharko da, irakasle guztiek betetzen duten tutoretza-eginkizunean.

Familiarekiko edo legezko tutorekiko eta ikasleekiko komunikazioa lehentasunezkoa izango da arrisku-kasuetan, baina baita gainerako ikasleekikoa ere. Beraz, tutore-lanaren esparruan, komeni da taldeko edo banako tutoretzako saioetan zeharkako gaitasunen garapenarekin lotura oso estua duten honako eremu hauetako batzuk planteatzea: izaten jakitea, harremanetan jarduten jakitea eta ikasten ikastea.

Bizikidetzeta-programak eta eskola-jazarpenaren aurkako borroka-protokoloak eguneratu egin behar dira, COVID-19agatik diskriminazioa prebenitu eta gelditzeko, eta hura jasaten ari diren pertsonak babesteko. Horretarako, Sailak unitate didaktiko moduko materiala eskainiko du, Bizikasi esparruan landuko dena, zeharkako gaitasunen garapena indartzeko.

Ikasleak **beren galderak eta ardurak eztabaidatzera** animatu behar dira. Hainbat erreakzio izatea normala dela azaldu behar zaie, eta zalantzarik edo kezkarik badute irakasleekin hitz egitera animatu. Informazioa zintzotasunez eta adinera egokituta eman behar da. Ikasleak gidatu egin behar dira beren ikaskideei nola lagundu eta **bazterketa eta intimidazioa nola ekidin** jakiteko. Ziurtatu behar da irakasleek **tokiko baliabideak ezagutzen dituztela**, beren ongizaterako. Osasun-/gizarte-langileekin lanean jardun behar da, estutasun-zeinuak dituzten ikasle eta langileak **identifikatu eta laguntzeko**.



#### 8.4. Laguntza- eta jarraipen-batzordeak

Salbuespenezko ikasturte-hasiera honetan, jardueraren garapenerako laguntza- eta jarraipen-batzordea ezarriko da ikastetxean, eta honako hauek eratuko dute: ikastetxeko zuzendaria, ikastetxeko laneko arriskuak prebenitzeko arduraduna, aita edo ama bat, edo OOGko iraunkorreko kide ordezkari bat, Berritzeguneko erreferentziako pertsona eta ikastetxeko ikuskatzailea.

Ikastetxeak Berritzeguneeen aholkularitza eta laguntza eta Hezkuntzako Ikuskaritza izango ditu, eta ikastetxeko laguntza- eta jarraipen-batzordeak ikuskaritza orokorrari irakaskuntza-jardueraren garapenean egon daitezkeen zalantza eta gorabeheren berri emango dio, eta, batik bat, **2. eta/edo 3. egoeretara** aldatuz gero.

Hezkuntza Sailean, Jarraipen-batzorde Orokorra ezarriko da. Honako hauek eratuko dute: ikuskatzaile orokorra, Berrikuntza, Baliabide eta Teknologien zuzendaria eta Osasun Saileko ordezkari bat. Batzordeak zalantzak eta gorabeherak aztertuko ditu, eta erantzun egingo die. Era berean, Batzordean unean-unean sartzeko deia egin ahal izango zaie kasuan kasuko arloa ezagutzen duten pertsona guztiei, sortzen diren gaiei hobeto erantzuteko aholkuak eman ditzaten.

Bere zeregin nagusia ikastetxeetako Laguntza eta Jarraipen Batzordeek planteatutako galderei edo zalantzei erantzutea eta horiek argitzea izango da, prebentzio-neurriei, antolaketa-neurriei edota jardueren garapenari dagokienez. Horretarako, beti hartuko dira kontuan Osasun Sailak eta Laneko Prebentzio eta Arriskuen Zerbitzuak emandako irizpideak, bai eta Hezkuntza Sailak ezarritako jarraibideak ere.